DEIALDIA, MUSIKA IRAKASLE HIRI LANPOSTU UHARTEKO UDALAREN MUSIKA ESKOLARAKO

Alkatetzaren 2026ko maiatzaren 14ko ebazpenaren bidez onetsia

Deialdia egin da hiru lanposturako kontratatzeko, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez, bitarteko kontratuarekin eta lan araubidean.

Espte. 1233/2026

Uharteko Udaleko alkateak, 2026ko maiatzaren 14an, deialdia onetsi zuen ondoko baldintza hauekin bat.

OINARRIAK

1.- Deialdi honen xedea da **HIRU LANPOSTU** betetzea eta, gainera, hautaproben bidez, **MUSIKA IRAKASLE** lanpostuan **(PIANOA, PERKUSIOA ETA GITARRA ELEKTRIKOA)** aritzeko izangaien zerrenda bat osatzea, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez

Deialdi hau Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren 42 2.d) artikuluak arautzen du. Haren bidez, Nafarroako administrazio publikoek aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak osatu ahalko dituzte.

B mailako HIRU PERTSONA kontratatuko dira, **2026-2027 ikasturte osorako, lanaldi partzialeko bitarteko kontratuarekin**. Berehala kontratatuko dira. Gainera, probak gainditzen dituzten pertsonak aldi baterako kontratatzeko zerrendan sartuko dira, kontrataziorako barne-araudian ezarritako baldintzetan.

Lanaldia araudi aplikagarrian ezarritakoa izanen da, baita opor, jaiegun, dieta eta gainerako eskubideen araubidea ere. Hala ere, lanaldia noiznahi aldatzen ahalko dute administrazio organo eskudunek, zerbitzuaren beharrek hala eskatzen dutenean. Ordutegia talde eta instrumentu bakoitzaren beharren arabera finkatuko da.

1.2. Bete beharreko eginkizunak udal instalazioetako musika irakasle batenak izanen dira, eskatutako espezialitateetako bakoitzean.

1.3. Lanpostuak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen **B mailako** lansariak izanen ditu. Era berean, plantilla organikoan aurreikusten diren lansari osagarriak jasoko ditu, baita hitzarmen kolektiboz lor daitezkeenak ere.

2.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

Probak hasten diren egunean, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako Nazioarteko Itunen aplikazio-eremuan sartutako estatu batekoa, langileen zirkulazio librea aplikagarria denean. Halaber, Espainiako nazionalitateko pertsonaren ezkontideak, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetakoek eta nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartutako estatuetakoek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta eskubide hori duten adingabeak eta ezkontide gisa bizi ez badira, edo ezkontide gisa bizi ez badira, 21 urtetik gorakoak badira.

Hamasei urte beteak izatea eta erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, **66ko planaren erdiko maila, LOGSEren instrumentuko goi-mailako titulua, LOEren edo LOMLOEren goi-mailako titulua edo titulu baliokidea izatea piano, perkusio edo gitarra elektrikoko espezialitatean, bete beharreko lanpostuaren arabera**. Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da. Gainera, zinpeko itzulpena erantsiko zaio tituluari.

Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia ez izatea. Espainiako herritartasuna ez duten izangaiek ez dute izan beharko kasuan kasuko estatuko funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik.

Langabezian edo enplegu hobekuntzan egotea eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua-Nafar Lansarean edo beste enplegu zerbitzu publiko batean inskribatuta egotea. Baldintza hori dagokion enplegu-zerbitzu publikoak emandako enplegu-eskaeraren frogagiria aurkeztuz justifikatuko da, eta frogagiri horrek indarrean egon beharko du.

Probak gainditu eta lanpostua deialdi honen oinarrietan aurreikusitako epean eta moduan lortu duten izangaiek egiaztatu beharko dituzte betebehar horiek. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako bete dituztela ulertuko da, eta hautapen prozedurak iraun bitartean eta kontratua egin arte bete beharko dituzte.

Izen-ematea erregistro bidez egin behar da, instantzia orokor baten bidez, **maiatzaren 31ko (igandea) 24ak baino lehen**, webgunean (www.huarte.es), edo, bestela, zuzenean, udaletxeko bulegoetan, “irakasle deialdia” eta zein musika-tresnarako aurkezten den adieraziz. Izena emateko orria bete behar da (II. eranskina), eta honako agiri hauek erantsi: **NANaren fotokopia**, 2. oinarrian adierazitako **tituluaren** fotokopia, SNE-Nafar Lansareko **enplegu-eskaeraren** edo enplegu-hobekuntzaren frogagiria eta izangaiak aurkeztu nahi dituen **merezimenduen** egiaztagiriak.

Izangaiak eskaintzen diren plazetako bat baino gehiagora aurkeztu nahi badu, eskabide bat egin beharko du aukeratutako **musika-tresna bakoitzeko**.

Ezgaitasun aitortua duten izangaiek ariketak egiteko denbora eta baliabide aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte. Kasu horretan, eskabidean adierazi beharko dute, eta aparteko orri batean adierazi zer minusbaliotasun duten eta zer egokitzapen eskatu dituzten.

Hautatzen diren eta aldi baterako kontrataziorako deitzen diren izangaiek baldintza horiek guztiak agiri bidez frogatu beharko dituzte, adierazten zaien unean, kontratua egin baino lehen.

Agiri horiek aurkezten ez dituztenak, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezin izanen dira kontratatu. Haien jarduketa guztiak baliorik gabe gelditukо dira, parte hartzeko eskabidean faltsukeriarik egonez gero izan dezaketen erantzukizunaren kalterik gabe.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izango da.

Ez da kobratuko espedientea formalizatzeko tasa eta azterketa-eskubideak.

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Uharteko Udaleko alkateak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Udalaren web orrian argitaratzeko aginduko du.

Izangai baztertuek, behin-behineko zerrendak argitaratu ondoan adierazten den epean, erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte eta, akatsik egin badira, haiek zuzendu. Izangai bazterturik ez badago, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda eta Udalaren webgunean argitaratuko da.

Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta erreklamazioei erantzun ondotik, Uharteko Udaleko alkateak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta Udalaren web orrian argitaratzeko aginduko du.

3.- Epaimahai kalifikatzailea.

3.1. Epaimahai kalifikatzaileak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: Alfredo Arruiz Sotés, Uharteko Udaleko alkatea edo honek eskuordetzen duena.

Idazkaria: Gustavo Jiménez Martín, Uharteko Udaleko giza baliabideen kudeatzailea edo haren ordezkoa.

Mahaikidea: Eduardo Arbuniés Larrea, Uharteko Musika Eskolako zuzendaria.

Mahaikidea: Uharteko Musika Eskolak izendatutako ordezkaria.

Batzordekidea: Langileen legezko ordezkariek izendatu beharrekoa.

3.2. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da.

3.3. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduaz sor daitezkeen arazo guztiak.

3.4. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake probarako.

4. Deialdiak bi fase izanen ditu:

LEHIAKETA ALDIA:

MEREZIMENDUAN BAREMAZIOA

A- Irakasle-lan esperientzia.

Gehienez 10 punturekin baloratuko da.

1. Administrazio publikoetako kontserbatorioetan edo musika-eskoletan, lanpostu bakoitzeko musika-tresnan irakasle gisa egindako ikasturte oso bakoitzeko: 1,50 puntu.

Hilabete bakoitzeko, ikastaro osoa baino laburragoa den urte zati bakoitzeko, aurreko atalean aipatzen diren lanpostuetan: 0,125 puntu hileko.

2. Beste musika ikastegi batzuetan, lanpostu bakoitzeko musika tresnan irakasle gisa egindako ikasturte oso bakoitzeko: 0,75 puntu (3 puntu gehienez).

3. Irakaskuntza arautuko beste ikastetxe batzuetan musika irakasle gisa egindako ikasturte bakoitzeko: 0,75 puntu (gehienez ere 3 puntu).

2. eta 3. puntuetan ikasturte frakzioa 0,06 puntukoa izanen da hilabete bakoitzeko.

Egiaztagiriak:

Lan-bizitza aurkeztu beharko da.

Ikastetxeko idazkariak luzatutako ziurtagiria, zuzendariaren oniritziarekin, ikasgaia eta egindako zerbitzuen benetako iraupena agerraraziz. Atal honen ondorioetarako, ikasturte osotzat hartuko da urritik ekainaren 30era bitarteko aldia. Zerbitzuak aldi berean ikastetxe batean baino gehiagotan eman badira, puntuazioak ezin izanen dira metatu.

B.-Merezimendu akademikoak.

Gehienez 4 punturekin baloratuko da.

1. Eskatutakoa ez den goi mailako beste titulazio batengatik: 2 puntu.

2. Erdi edo goi mailako pedagogia izaerako beste titulazio batzuk izateagatik, bakoitzagatik puntu 1.

3. Espezializazio Didaktikoaren lanbide titulua edo Gaitasun Pedagogikoaren Ziurtagiria izateagatik: 0,50 puntu.

C.- Beste merezimendu batzuk.

Gehienez 3.90 punturekin baloratuko da.

1. Prestakuntza-ikastaroak.

Lortu nahi den espezialitateari edo eskola-antolaketari lotutako hezkuntza administrazioek edo unibertsitateek, hezkuntzari, psikopedagogiari eta hezkuntzaren soziologiari aplikatutako teknologia berriek deitutako prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaro bakoitzeko: 0,10 puntu 10 orduko ikastaro bakoitzeko edo kreditu akademiko bakoitzeko; gehienez ere 2 puntu.

Ondorio horietarako, ikastaro guztietako orduak batuko dira, eta ez dira puntuatuko 10 ordutik beherako gainerako orduak.

Frogagiriak: parte hartu izanaren ordu kopurua edo kreditu kopurua espresuki adierazten duten ziurtagiriak.

2. Izangaiak aurkeztu nahi dituen bestelako merezimenduak, aurreko ataletan baloratu ez direnak: kontzertuak, argitalpenak, etab.

Bakarlari gisa emandako kontzertua: 0,5 puntu.

Taldekako kontzertua: 0.25 puntu.

Prestakuntza ikastaroetara joateagatik: 0,25 puntu.

Argitalpenak: 0.5 puntu.

Gehienez 3 puntu.

d) Euskararen ezagutza: gehienez 2,10 puntu.

– A1 maila: 0,42 puntu.

- A2 maila: 0.84 puntu.

– B1 maila: 1,26 puntu.

– B2 maila: 1.68 puntu.

– C1 maila: 2.10 puntu.

Hizkuntza Eskola Ofizialak emandako gaitasun agiriaren bidez edo ofizialki baliokidea den beste titulu baten bidez egiaztatzen ahalko da.

Titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkeztuz gero, epaimahaiak soil-soilik baloratuko du maila gorena egiaztatzen duen ziurtagiria edo titulua.

Epaimahaiak noiznahi eska ditzake izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko argibideak eta datu osagarriak.

OPOSIZIO-ALDIA:

A- Oposizio-aldiaren garapena.

Oposizio-aldiak bi fase izanen ditu, egun berean, bata bestearen ondoren:

Azterketa praktikoa:

Hogei minutu baino gehiago irauten ez duten bi abesti edo gehiago bakarlari gisa interpretatzea.

Proba honek 40 puntu izanen ditu gehienez, eta bazterturik gelditukо dira 20 puntu lortzen ez dituztenak.

- ## Irakaskuntzako ariketa praktikoa:

Lortu nahi den espezialitateko klase bat eman beharko dio ikasle berri edo hasi berri bati, edo haren nondik norakoak azaldu beharko ditu epaimahaiaren aurrean. Proba honek gehienez ere hogei minutu iraunen du. Azterketak egiterakoan ez da beharrezkoa izango ikasleek bertan parte hartzea.

Proba honek 40 puntu izanen ditu gehienez, eta bazterturik geldituko dira 20 puntu lortzen ez dituztenak.

Bi ariketak ekainetik aurrera egingo dira. Epaimahaiak bi probak egun berean egitea erabaki dezake.

Oposizioko azken kalifikazioa lortzeko, izangai bakoitzak bi ariketetan lortutako puntuazioak batuko dira.

Oposizio-aldiko proba guztiak deialdi bakarraren bidez eginen dira. Izangaiek NANa aldean dutela agertu beharko dute, behar bezala egiaztatuak izan daitezen. Bazterturik geldituko dira iragarritako egun, ordu eta tokietan aurkezten ez direnak, arrazoia edozein dela ere.

Hautaprobak egiteko, ezgaitasun aitortua duten eta eskabidean hala eskatzen duten izangaientzat, denbora eta baliabide aldetik egiten ahal diren eta beharrezkoak diren egokitzapenak ezarriko dira.

Azken kalifikazioa lortzeko, izangai bakoitzak bi faseetan lortutako puntuazioak batuko dira.

Izangaiek bi egun balioduneko epea izanen dute bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak egiteko.

5.- Azterketa gainditu dutenen zerrenda eta deialdia.

5.1. Proben kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak Uharteko Udalaren iragarki oholean eta www.huarte.es webgunean argitaratuko du gainditutakoen zerrenda, lortutako puntuazio osoaren arabera, eta alkateari bidaliko dio, hark onar dezan, hautapen prozesuaren espediente osoarekin batera. Gainditzen dutenek, gainera, etorkizuneko aldi baterako beharrak betetzeko zerrendan sartuko dira, betiere udalaren araudiaren barruan.

Berdinketarik gertatuz gero, zozketaz ebatziko da.

5.2. Kontratatutako pertsonei alta emango zaie eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatuko dira. Beraz, horien kargura izango dira dagokien kuota eta P.F.E.Z.aren atxikipena. bidezko diren zenbatekoetan. **Lanean hasiko da 2026ko irailean, ikasturtea hasten denean.**

6.- Datu pertsonalen babesa.

2016/679 (DBEO) Erregelamenduaren (EB) 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz, izangaiei honako hauen berri ematen zaie:

- Deialdi honetan parte hartzearen ondorioz emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Uharteko Udala da.
- Tratamenduaren helburua da deialdi hau oposizio-lehiaketa bidez betetzea.
- Tratamendua ahalbidetzen duen oinarri juridikoa hau da:

DBEOren 6.1.b) artikulua. Interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunak eskatuta kontratu aurreko neurriak aplikatzeko behar den tratamendua.

DBEOren 6.1.c) artikulua. Tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion lege-betebeharra betetzeko beharrezko tratamendua.

- Datuak behar beste denboraz gordeko dira, zertarako biltzen diren eta deialdiaren eta tratamenduaren ondorioz sor litezkeen erantzukizunak zehazteko. Datuak beste administrazio batzuekin partekatu ahal izango dira, lan-helburuekin. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da (Nafarroako toki entitateen dokumentuak ebaluatu eta ezabatzeko jarraibideak).
- Datuak legez aurreikusitako kasuetan jakinaraziko dira eta deialdian xedatutakoaren arabera argitaratuko dira. Deialdian parte hartzen duten pertsonek onartzen dute beren datuak laneko helburuak dituzten beste erakunde publiko batzuekin partekatu ahal izatea.
  Titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta eramateko eskubideak erabil ditzakete udal-bulegoetan edo egoitza elektronikoaren bidez.

– Halaber, eskubidea dute erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (aepd.es), baldin eta uste badute tratamendua ez datorrela bat indarrean dagoen araudiarekin, edo, bestela, aurrez egiteko datuak babesteko ordezkariaren aurrean, lehen adierazitako helbidean.

7.- Errekurtsoak.

Deialdi honen, bere oinarrien eta aplikazio egintzen kontra, errekurtso hauetako bat paratzen ahalko da, hautara:

a) Berraztertzeko errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa paratzen ahalko da, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

Uharte, 2026ko maiatzaren 14a.-Uharteko Udaleko Alkatea, Alfredo Ruiz Sotés jauna.

ANEXO II: SOLICITUD DE INSCRIPCIÓN

EN LA CONVOCATORIA PARA EL PUESTO DE PROFESOR

DE.....DEL AYUNTAMIENTO DE HUARTE.

Don/Doña .....

mayor de edad, provisto/a de Documento Nacional de Identidad número .....

(o carta de identidad equivalente) y nacido/a el día ..... de ..... de ..... , natural de

(.....),, con domicilio actual en

(.....)

Calle ..... código postal .....

Teléfono 1 ..... teléfono .....

mail .....

Expone:

Que solicita ser admitida a la convocatoria de..... del Ayuntamiento de Huarte.

Que no padece enfermedad ni defecto físico o psíquico que le incapacite para el ejercicio del puesto.

Que no está incursa en ninguna de las incapacidades establecidas en las disposiciones vigentes.

Que no ha sido separada mediante expediente disciplinario del servicio de cualquier Administración Pública, ni está inha-bilitada para el ejercicio de las funciones públicas.

Que reúne todos y cada uno de los requisitos exigidos, referidos a la fecha de expiración del plazo señalado para la presen-tación de solicitudes y que aporta la siguiente documentación:

- Fotocopia de DNI.
- Titulación que acredite el nivel de estudios exigido para la convocatoria.
- Documentación que acredite los méritos (opcional) .
- Justificante de demanda de empleo.

Que acepta que las notificaciones relativas a esta convocatoria de contratación se realicen de manera válida en la dirección de correo electrónico arriba indicada.

Que autoriza al Ayuntamiento de Huarte a acceder a sus datos personales para comunicaciones relacionadas con la convo-catoria.

Que acepta el almacenamiento, custodia y tratamiento de estos datos personales, al objeto de tramitación de esta convo-catoria o de otras convocatorias en otros organismos públicos y para la gestión de las listas de contratación que puedan surgir de la misma

Por lo expuesto,

Solicita la admisión de la presente solicitud y la participación en la convocatoria referida.

Huarte, a..... de mayo de 2026.

(Firma)